



**ARBIZUKO
UDALA**

**ALKATEAREN EBAZPENA 29/2023 ZK.
AIZAGA ZEBERIO PETRIATI
ARBIZUKO UDALEKO ALKATEORDEAK (NAFARROA)**

IKUSIA:

Arbizuko Udaleko Idazkaritza eta Kontu-hartzailatza lanpostua aldi baterako eta administrazio-araubidean betetzeko hautaketa-prozedura bukatuta, Arbizuko alkateak 2023ko martxoaren 27ko (19-23) Ebazpenaren bidez horretarako onetsitako deialdian bildutako oinarrien arabera, probak kalifikatzen dituen epaimahaiak puntuaziorik handiena lortu duen izangaiaren aldeko proposamena egin du: María Balda Galán.

Epaimahaiak proposatutako izangaiak, Maria Balda Galan andreak, Udal honetan aurkeztutako idazkiaren bidez eskaintako kontratazioari uko egin diola adierazi du eta aldi baterako kontratazioa kudeatzeko arauak onartzen dituen Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak abenduaren 31n emandako 814/2010 Foru Aginduen 14.1.e) artikuluan oinarrituta justifikatzen duela.

Eta Epaimahaiaren 2023/05/11ko aktan jasotako behin betiko emaitzak ikusita,

<u>Plika Zbkia</u>	<u>Izena</u>	<u>Abizenak</u>	<u>Emaitza</u>
1	Maria	Balda Galan	54,159
2	Unai	Palenzuela Argote	32
3	Amaia	Abucide Aylagas	24

8.4.oinarrian ezarritakoaren arabera hautatzen den izangaiak lanpostuan sartu beharko du 7 eguneko epean gehienez ere, deialdia egin duen Administrazioaren kontratazio proposamena onartzen duen egunetik hasita. Izangaia epe horretan lanean hasiko ez balitz, nahiko justifikatutako kasuetan izan ezik edota lanpostua berriz hutsik geratuz gero, eta 1.2 oinarrian ezarritakoari jarraikiz, organo eskudunek hautespen prozesuan lortutako puntuazio onenaren hurrenkerari jarraikiz izangaiak kontratatzen ahalko ditu, eskaintako kontratazioarekin ados daudela adierazten badute

EBAZTEN DUT:

1.-Unai Palenzuela Argote Arbizuko Udaleko idazkari kontu-hartzaile izendatzea, lanpostu hori aldi baterako betetzeko, horretarako egindako deialdiaren arabera.



ARBIZUKO
UDALA

2.- Izangaiei jakinaraztea eta ebazpen hau Udalaren iragarki oholean eta web orrian argitaratzea.

3.- Ebazpen honen aurka, errekurso hauetako bat aurkez daiteke, hautara:

- a) Berraztertzeko errekursoa, egintzaren organo egileari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita.
- b) Administrazioarekiko auzi-errekursoa, administrazioarekiko auzien jurisdikzioko organo eskudunari zuzendua, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legean xedatutakoarekin bat etorriz, bi hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta biharamunetik hasita, edo bestela,
- c) Gora jotzeko errekursoa, Nafarroako Administrazio Auzitegiari zuzendua, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazten denetik hasita.

Arbizun, 2023 ko Maiatzaren ren 17 an.

Alkalteordea

Nire aurrean ustekabeko Idazkaria